

1. Informazioa eta datuen tratamendua

1.2. Informazioaren, datuen eta eduki digitalen ebaluazioa:

1.2.1. Informazioa ebaluatzeko beharra

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Informazioa eta datuen
tratamendua.
Informazioaren, datuen
eta eduki digitalen
ebaluazioa

INFORMAZIOA EBALUATZEKO BEHARRA



CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



Informazioa ebaluatzeko irizpideak zein diren jakitea.

Informazio iturri desberdinetako informazioa ebaluatzea.

LABURPENA

- Zergatik ebaluatu behar dugu informazioa
- Informazio iturriak
- Informazioa nola ebaluatu
- Aholkuak
- Gehiago jakiteko...

ZERGATIK EBALUATU BEHAR DUGU INFORMAZIOA

Informazio zientifikoa aurkitzen ikasi duzu dagoeneko. Seguraski gehiegi aurkitu duzu: **infoxikazio edo informazio zarata** deritzoguna da.

Lortu duzun informazio gehiena zure gaiari dagokiona da eta garrantzitsua dirudi. Imajinatu 15 artikulu oso interesgarri dituzula, 5 monografia eta Interneteko 7 orrialde inguru... Zer egin beharko zenuke orain?

Ba, koltsultatutako iturriak eta aurkitutako informazioa ebaluatzea.

Informazioaren ebaluazioa bilaketa prozesua bezain garrantzitsua da. Erabiltzen dugun informazioa egokia eta kalitatezkoa dela ziurtatzen digu.

1

INFORMAZIO ITURRIAK

- Informazio baliabide nagusiak **katalogoak, informazio zientifikoaren atariak, datu baseak** eta **Internet** dira. Bere ezaugarri nagusiak ezagutzea informazioa ebaluatzeko lehen urratsa da.
- Zure lanerako ziurrenik informazio iturri gehienetara jo beharko duzu, baina kasu bakoitzean batzuei edo besteei emango diezu lehentasuna. Ez dituzu oinarri berdinak erabiliko ekonomia iraunkorraren garrantzia aztertzen baduzu edo zure gaia ordenagailuaren segurtasunari buruzkoa bada. Normalean zure **ikerketa gaiaren** arabera izango da.
- Informazio iturri hauetan hainbat informazio aurkituko duzu: monografiak, aldizkari artikulua, txostenak, web orriak... Aukeratu ahal izateko ebaluatu egin behar dituzu.




Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak eskainitako [informazio baliabideak](#) kontsultatu.

Badira ebaluazio irizpide orokorrak eta tipologia jakin batzuentzat irizpide zehatzak. Adibidez, irizpide desberdinak erabiliko ditugu blog bat edo artikulu zientifiko bat ebaluatzen ari bagara.

Irizpide hauek honakoei erreferentzia egin diezaiekete :

- Edukia, egiletza edo objektibotasuna bezalako barne elementuak.
- Aurkezpena bezalako obraren inguruko kanpo elementuak.

Garrantzitsuenak **edukian** eta **egiletzan** eragiten dutenak dira, baina ezin dugu alde batera utzi, oinarrizko beste irizpide batzuen artean, informazioaren **gaurkotasuna**, ezta haren **helburua** ere.



2

EBALUAZIO IRIZPIDEAK

EDUKIA	Kalitatezko edukia da? Modu egokian lantzen du gaia? Ekarpenak indartzeko bibliografia ematen du? Zure ikerketa lanetarako eduki egokia da?
EGILETZA	Egilea gaian aditua da? Erakunde edo enpresa baten kide da? Zein da lan honetan duen papera? Egilea, konpilatzailea, editorea... da?
OBJEKTIBITATEA	Gaia modu neutro batean jorratzen da? Sinesmenak, dogmak edo ikuspuntuak testuan islatzen dira?
PUBLIKOA	Nori zuzentzen zaio informazioa? Ikasle bati? Publiko orokorrari? Aditu bati?
GAURKOTASUNA	Eguneratutako informazioa da? Noiz idatzi zen? Arlo batzuetan oso garrantzitsua da, informazioa azkar zaharkitzen baita.
ESPARRUA	Informazioa norberaren beharretara egokitu behar da bai luzeran eta baita sakontasunean ere.
TIPOLOGIA DOKUMENTALA	Oso eguneratua den informazioa behar al duzu? Edo horren orde, gai baten inguruko azterketa osoa eta zehatza? Lehenengo kasuan artikuluei emango diezu lehentasuna eta bigarrengoan liburu edo monografieiei.

3

EBALUAZIO AHOLKUAK



1. Egiaztatu erabilitako iturriak fidagarriak direla. Kontuz informazio anonimoarekin.
2. Bilatu, bilatu eta bilatu. Ez konformatu aurkitzen duzun lehen baliabidearekin. Informazio anitza bilatu, iturri desberdinak kontsultatu, dokumentu desberdinak kontrastatu, berrikusi eta alderatu informazioa ona dela onartu aurretik.
3. Edozein euskarritan eskuragarri dagoen informazioarekiko jarrera kritiko eta burutsua izan ezazu. Aurkitutako informazioa beti irizpide desberdinekin aztertu eta ebaluatu behar da, bai Interneten edo bertatik kanpo, paperezko euskarrian edo ta elektronikoan izanda ere.
4. Ez erabili interneteko bilatzaileak bakarrik, beste baliabide batzuk ere kontsultatu beharko dituzu informazioa bilatu eta kontrastatzeko (katalogoak, datu baseak, entziklopediak, etab.).

3

EBALUAZIO AHOLKUAK



- Egilea arloan aditua dela egiaztatu.
- Dokumentuan jasotako informazioak eguneratuta egon behar du.
- Edukia, luzera eta sakonera zure beharretara egokituta egon behar dira.
- Ebaluazio irizpide guztiak logika erabiliz aplikatu eta tipologia dokumentalaren arabera garrantzitsuenak aukeratu.

Aholkua: informazio anitza bilatu, baliabide desberdinak kontsultatu, berrikusi eta alderatu informazioa ona dela onartu aurretik



GEHIAGO JAKITEKO...

¡Zalantzarik baduzu zure [bibliotekarekin](#)
kontsultatu!



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa
Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu